

BERRIGARA

18. zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, maiatzak 6



Bergara Hiria argazki lehiaketa

Autoberezi

FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



EUSKALDUNON

J A I A 9 4



EUSKALDUNON **Egunkaria**

MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK - KUKUBILTZO
DULTZAINEROAK - TXARANGAK - HAUR JOKOAK - DANTZARIAK
HANKAPALOAK - ERRALDOIAK - TRIKITILARIAK - TXALAPARTARIAK
BERBENA - ESKOLAKO UME LASTERKETA - HERRI KIROLAK - GAZTEEN
ESKUPILOTA TXAPELKETAREN FINALA - GAZTEEN JOKO GARBI
TXAPELKETAREN FINALA - HERRI BAZKARIA - MAIXA ETA ITZIAR
ROCK KONTZERTUA: TAPIA & LETURIA - ANJE
DUHALDE - EXKIXU - BERTSOLARI GAZTEAK

Errot
Thoa
Argi
Jardu
Maste
@ 76
Zuze
Erre
Erred
Enko
Miel
Make
Enko
Publi
Alex Az
@ 76 G
Kolab
Jose An
Miguel
Elexpur
Herea A
Bangoa
Belastie
Eskuria,
eta Ane
Komiki
Gitor Ro
Alvarez,
eta Julia
Portada
Agustin O
Mikeleta
Banake
Txantxan
Titada:
Agripma
Gertu Koo
Copyrig
Lage go
ISSN: 11
BERRIGA
idizkaria
erantzunk

Gipuz

BERRIGARA

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Tirtoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Argitaratzaileak
Elkartea
Masterrera, 13. 20.570 Bergara.
76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta
Mikel Elkoroberezar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.
76 03 97

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,
Miguel Angel Elkoroberezar, Juan Martin
Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,
Aneza Aizelari, Ainhoa Lete, Jon Ander
Sangoa, Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa
Bakuria, Asier Madinabeitia, Josune Inarra
eta Ane Miren Goenaga.

Komikia eta marrazkiak:

Artor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon
Alvarez, Jose Martin Ezenarro
eta Julian Ezenarro.

Portadako argazkia:

Agustin Gurrutxaga ("Bergara Hiria"
nahaketa lehen saria koloretan).

Banaketa:

Antxongorri Taldea.

Tirada: 3.500 ale.**Impremategia:**

Berta Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Copyright: BERRIGARA

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen
nahaketa adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Bergarako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jaurlaritzako Kultura
Sailaren laguntza jaso du

Z E R B E R R I D A ?

JOSE MARTIN GALLASTEGI

Mankomunitateko Zabor arduraduna

- Beira, papera,
kartoia eta pilak ba-
tzeko kontenedoreen
kopurua haunditu
duzue...

- Horrela da, le-
hengo kontenedoreez
gain, beste hainbat to-
kitan jarri ditugu, jen-
deari gauzak ahalik eta
gehien errezteko. Bes-
tela, jendeak kontene-
doreak hurbil ez ba-
ditu, zaborrekin batera
botatzeko ohitura dau-
ka.

Papera batzekoak
(guztiak berriak) jarri
dira jadanik eta hemend-
ik hilabate inguru beir-
arenak (aurrekoen
berdinak) jarriko dira.
Bergaran, dena, 42
izango dira.

- Bergaran zer no-
lako emaitza izan du-



te?

- Beirari dagokio-
nez, 130.844 Kg. batu
ziren aurreko urtean
eta besteetan Manko-
munitate osoko datuak
ditugu: 654 tona paper-
katoi, 150.000 pila nor-
mal eta 17.500 pila txal-
pal batu ziren guztira.

**"Kontenedore gehiago jarri dira
jendeari gauzak errezteko"**

I T U R R I O N E T I K

Bergarako 23 bat monumentu seinalizatuko dira

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak martxan jarri
berri duen *Euskadiko Monumentuen*
Seinalapena izeneko programaren barne,
herriko 23 bat monumentu seinalizatuko dira.
Plaka horietan, monumentuaren izendapena,
izena eta data jasoko dira. Lehendabiziko fasean
ez da Bergarako monumentuetan plakarik
jarriko, baina hemendik epe laburrera
monumentu kalifikatuei, hau da, garrantzi
haundikoak direnei (13 jadanik), eta
kalifikatzeko bidean daudenei (beste 10
monumentu) aipatutako plaka jarriko zaie.

E S A N
D U T E

"Euskaldunak saltzaile
kaxkarrak izan gara
betidanik eta euskal
enpresariak ere,
euskaldunak garenez
gero, saltzaile txarrak
gara. Hori da
konpondu behar
dugun huts bat.

Atzerriko merkatuetara
gehiago irten behar
gara eta gaur egun
baino hobeto saldu
behar ditugu gure
produktuak"

MIGUEL LAZPIUR
Enpresaria
TVE

"Begiak zabaltzea
nahikoa da euskarak
kalean daukan
presentzia ikusteko:
minimoa"

**JUAN MARTIN
ELEXPURU**
Idazlea
ARIZ-ONDO

"Bere adinean azken
urteetan Bergarak
eman duen pelotaririk
onena da Iker
Muruamendiaraz. Jokin
Etxanizek ere partidu
guztiak irabazten
zituena baina ez zuen
banaka jokatzeko.
Ikerrek, aldiz, oso
ondo jokatzeko du
binaka zein banaka"

REYES AZKOITIA
Pelota entrenatzailea
ARIZ-ONDO



Zinea

▼▼ Kazuo

Ishiguroren nobelan oinarrituta, *Stevens* (**Anthony Hopkins**) mayordomo ingelesaren istorioa azaltzen zaigu. Lord Darlingtonekin igarotako urteak eta galdutako amodioa (**Emma Thompson**) gogoratuko ditu bere nagusiaren benetazko izaera ezagutu arte.

▼▼ Robin Williams

(*El rey pescador*) ezagunak eginiko azken komedia, bere espezialitatea. Bere emazteak (**Sally Field**) etxetik bota ondoren, ahal duen guztia egingo du bertan jarraitzeko, eta etxeko lanak egiteko lana suertatuko zaio.

▼▼ Jeunet eta

Carok izugarritzko arrakasta lortu zuten filme honekin, hainbat *Cesar* (Frantziako *Oscarrak*) tartean. Imajinek hitzek baino indar haundiago daukate eta, umorea eta drama tartekatuz, etxe oso berezi bateko bizilagunen berri ematen zaigu. Adi harakinari...



Deiak

▼ **Zezenenganako** Errespetuaren Aldeko Batzordearen bilera gaur, 19.00etan, Kultur Etxean.

▼ **Argazkiak.** Txakur Leren Lasterketako argazkiak Nahikarín.


▼ **Jubilatuak.** Gorlara mendi irteera ostegunean, maiatzak 12. Bazkaria Altsasun, Elgetako trikitilariekin. 1.200 pta. Plaza mugatuak. Maiatzaren 17an Cabarcenoko (Kantabria) Parke Naturalera irteera (2.600 pta.).

▼ **Arrasate-Oñati** lasterketa popularra (11 Km.) maiatzaren 15ean goizeko 11etan (16 urtetik gorakoentzat). Izen-ematea aurretik Laixan (716311) edota AEDn (771228) eta lasterketa egunean 10.30ak arte Arrasateko Portaloian (izen-ematea: 500 pta.)



Ogia

▼ **Igandea 8:** Bolintxo.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 7:** Estella.
- ▼ **Igandea 8:** Estella.
- ▼ **Astelehena 9:** Mozos.
- ▼ **Asteartea 10:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 11:** Puy.
- ▼ **Osteguna 12:** Guallar.
- ▼ **Ostirala 13:** Estella.



LO QUE QUEDA DEL DÍA
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30
(Ikuslearen Eguna).



SRA. DOUBTFIRE
Igandea: 11.30.



DELICATESSEN
Osteguna: 20.00.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA


Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

BERGARA HIRIA argazkiak

Igandera arte Kultur Etxean ikusgai

Bergara Hiria X. Argazki Lehiaketako lanak ikusi ahal izango dira igandera arte Kultur Etxean. Larunbatean, apirilak 30, bildu zen Javier Carballo (AFIAP), Javier Ruiz de Larrinaga (Azpeitiko Argazki Elkarte) eta Fermin Etxeberriak (Zarautzko Argazki Elkarte) osatutako epaimahaia eta ondoko sariak banatzea erabaki zuten: zuribeltzean, lehen saria Benito Cantero bergararra "*Bardeak*" lanagatik, bigarre-na Jose Luis Irigoien eibartarra ("*S/T*"), hirugarrena Mamen Mari donostiarra ("*Mei Lan*") eta herriko onena Javier Areitio "*Landua*" lanari esker.




Koloretan, berriz, Agustín Gurrutxaga bergararrak eskuratu du lehen saria ("*Malen II*"), Jose Luis Feo arrasatearrak bigarre-na ("*N.2*") eta hirugarren saria Benito Canterorentzat izan da ("*Foto III*"). Azkenik herriko onenari zegokion saria Natxo Millanentzat izan da "*Tiempo*" izenburuko lanagatik.


Euskal Herri osoko 45 argazkilarik hartu dute parte eta 190 lan aurkeztu dira. Epaimahaiak dienez, "*X. edizio hau kalitate haundikoa izan da, inoiz baino lan gehiago eta kalitate hobekoak aurkeztu dira*".

Goian Benito Canteroren "*Bardeak*", lehen saria zuribeltzean. Eskuman, berriz, Natxo Millanen "*Tiempo*", herriko onena koloretan.

Sari banaketa larunbatean egingo da 7etan Kultur Etxean. Kategoria bakoitzeko lehen hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pta.ko saria eta Tere Guenetxea plaentziarraren eskultura eskusibo bana eskuratuko dute. Herriko onenek ere 10.000 pta. eta eskultura jasoko dute.



KOXKA



- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Boda eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.
Era guztietako erreparazioak.
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.
 ☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT

Eskerrak emonez

Joan zen apirilaren 13an, Antonio Garcia insumisoa epaitu zuten Donostian, Antzuola mailan insumiso bati egiten zitzaion lehen epaiketa izan zen.

Antzuolako Insumiso Taldeak (A.I.T.), idazki honekin gure eskerrik onenak ematea nahi du, Antzuolako Udalari, bereziki bertako alkate den Roke Iñarrari, epaiketan alde deklaratu zuenez, beste bi zinegotzirekin batera. Eskertzen dugu baita, Udaletxeak hartutako joera insumisioarekiko, aurkeztutako mozioa onartzean.

Besterik gabe, Ejerzitorik ez!! Insumisioa.

ANTZUOLAKO INTSUMISO TALDEA

Demokrazia eta herri partehartzea

Despotismo ilustratu garai hobereetan bezala "dena herriaren alde, baina herriarekin kontatu gabe" axioma, egun dagoen demokrazia ordezkatzailerari aplika dakiok. Hau da, herri partehartzea edukin errealik gabe eta marko juridikoan inolako bertziaziorik gabeko iseka bihurtu da.

Sistema demokratiko batean herri mugimenduak garatu behar duten oinarrizko paperak, hots, nonnahi dagoen estatuaren interesen eta hiritarren nahien arteko koltxoiak, gaur egun ez du inolako adierazpiderik.

Demokrazia eta partehartzeko tresnatzat proiektuen hilabeteko azalpen publikoa eta alegazio garaia ezin baitira hartu. Alderantziz, apaintzeko eta boterearen nahikeriaren menpe dauden elementu legalista gisa erabiltzen dira. Botere hau sortua dago bere ekintza interesatuen onspena jasotzeko.

Instituzioak eta gizartearen artean gero eta nabariago den desloturaren aurrean zera eskatzen dugu: demokrazia terminoari bere benetazko esanahia ematea. Horrela, bai herritarroi dagozkigun bai gure etorkizuna baldintzatzen dituzten erabakietan parte hartu ahal izango dugu.

Ingurugiroaren arloan herriaren nahia eta botere politikoak hartzen dituen erabakien arteko desadostasunak gero eta maizago ematen dira. Lemoizen kontrako borrokari beste borroka batzuek jarraitu diote, hala nola, Leitza-ran zaintzearen aldekoa edota Itoitzen egin nahi duten astokeriaren kontra-koa, agerian dauden desadostasun orokorren bi adibide azpimarratze-rrin.

Egoera honen aurrean, Gasteizko Gobernuaren Herrilan eta Garraio Kontseilaritzak erabaki du Partehartzeko Interbentzio Guneen sormena bultzatzea, Maltzaga eta Urbinaren arteko arrazoi gabeko autopistaren proiektua aurrera eramateko.

Erabaki hau hartzeko bultzatu dituen interesak nahiko garbi ikusten dira obra honen komengarritasuna aztertzeko sortutako Gune hauen finantziaketa DEBASaren esku uztean. Enpresa publiko hau sortua da aipatutako autopista bultzatu eta erabiltzeko. Horrelako lan erraldioen aurrean Herriaren erantzuna desaktibatzeke asmoz egiten den saiakera arrunt honek erakusten du bere bultzatzaileen izaera demokratikoa zein den. Gainera, horrelako lanek gure Herria bertebratu beharrean, eraso eginez bereizten dute.

Prebentibo gisa pentsatua dagoen sistema, sistema honen erabakiak binkulanteak ez direnean, baldintzetan berdintasun markorik ez dagoenean, eta sistema juridikoan uztartua ez egoteaz gain, kontrol parlamentario sistema kaxkarrarekin defuntzioak sortzen dituen sistema eratzeak, berriro ere, administrazioak behatza ilargirantz zuzentzen denean behatzari begiratzen diola pentsarazten digu.

EGUZKI

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ **Udal Euskaltegia**

Udal Euskaltegiak bere X. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barne, maiatzaren 27an azken 10 urte hauetan euskaltegitik pasatako ikasleen afaria izango da euskaltegi ondoko Frontoian.

Interesatuak maiatzaren 18a baino lehen 76 44 53 telefonora deitu beharko dute. Prezioa 2.000 pta.koa da eta afaria Imuntzo eta Ritxar trikitilariak alaituko dute.

◆ **DYAren diru eskaera**

Deba Garaiko DYAk bere urteroko diru eskaera egingo du maiatzaren 7 eta 8an. Kuestazioaren helburu nagusia urteko aurrekontuari (3 milioi pezeta) aurre egin ahal izateko dirua jasotzea litzateke. DYAk, aldezturik, guztion laguntza eta interesa eskertu nahi du.



Zezen ekitaldiek 1.500.000 pta.ko aurrekontua dute. Zezenzaleak taldeak (argazkian) autofinantziaketa lortu nahi du.

Jaietako txekorketa aurkeztu da

Zezenzaleak taldeak hainbat zezen ekitaldi prestatu ditu

Larunbatean Gure Ametsa elkarteak Zezenzaleak taldeak aurtengo Pazkuetarako antolatutako zezen ekitaldiak eta Abdon Juaristi margolariak kartelerako eginiko koadroa aurkeztu zuen prentsaurrean, besteak beste, Victoriano Gallas-tegi alkatea eta Carlos Arrondo zinegotzia bertan zirela.

Pazkuetako txekorke-

ta maiatzaren 22an betan izango da (*paseilloa* orduerdi lehenago egingo da), eta Alvaro de la Calle Samancako 18 urteko gaztea eta Francisco Marco Oyarzabal 16 urteko naparrak Idiazabal anaien ganadutegiko bina zezen toreatuko dituzte. Ordezkoa Jose Manuel Pérez bilbotarra izango da.

Txekorketarako sarre-

rak Usoa, Etxalar, Urrats, Ganbara, Canalejas eta Zer-Nai tabernetan salduko dira. Barrera 2.000 pta.tan, tendidoa 1.500 eta kuadrilentzat (10 lagun gutxienez), 1.000 pta. Aurten ere hiru entzietan izango dira igandean, astelehen eta asteartean eta, nobedade gisa, kuadrilak eta haurrei zuzendutako ikuskizunak izango dira.

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



ZIRIPOT

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

ANTIA

ARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

◆ Asentsio jaiak

Ostegunean, Zubiurre-Martokon, 7etan txokolate-jana, eta ondoren buruhaundiak eta Musika Eskolako soinujoleekin kalejira.

◆ Sukaldaritza

Pazkuetako Elkarteen Arteko Sukaldaritza Lehiaketan parte hartu nahi dutenek larunbatean Kultur Etxera jo beharko dute, 9.30etatik 14.00etara.

◆ Makinatu

Taun-Taun Txotxongilo taldearen "Makinatu" lanaren emanaldiak izango dira ostiral eta larunbatean, 22.30etan, Mariaren Lagundian.

◆ EAren oharra

Eusko Alkartasunak alderdikide eta jarraitzaileei dei egiten die ostegunean, hilak 12, 19.30etan egingo den Ez-Ohizko Batzarrean parte hartzeko.

◆ Apostasia kanpaina

Asteburu honetan jarriko da martxan apostasia kanpaina. Hortaz, Elizatik kanporatu nahi dutenek hainbat tabernetan aurki ditzakete agiriak.

◆ Zozketa

206 zenbakia izan da Labegarietako jaietako zozketan saritua.



Antzuolan Oñati, Arrasate, Eskoriatza eta Bergarako taldeek parte hartuko dute.

Dantzari nagusien eguna Antzuolan

Igande goizean 300 bat dantzari biltzea espero da

Bailarako Dantzari Nagusien eguna ospatuko da igandean, maiatzak 8, Antzuolan. Bertan Oñati, Bergara, Arrasate eta Eskoriatzako taldeek parte hartuko dute eta 300 bat dantzari biltzea espero da. Bailarako dantza taldeek dituzten dantza-agertaldien eskasia dela eta, dantza taldeen ordezkariak urtero saio bat antolatzea erabaki zuten, dantza talde ezberdinei irteera bat emateko eta, bide batez, gure herriaren kultura eta folklorea adierazteko. Aurtengo edizioa Antzuolan ospatuko da.

Igandean, goizeko 10etan dan-

tza talde guztiak herrian elkartuko dira eta txistulariek goiz ereserki joko dute. 11etan dantza talde guztien kalejira egingo da, auzoetan dantza eginaz, 12.15etan Plazan dantza ekitaldia izango da, 13.15etan herriko kaleetan txistukiteoa, 13.45tan bazkaria, 17etan dantza ekitaldia plazan eta amaitzeko, 18.30etan erromeria izango da herriko plazan.

Jai honen antolatzaileek dei egiten diete antzuolarrei eta bailarako beste biztanle guztiei egun horretan parte hartu eta Antzuolara hurbil daitezen.

20 urte zure
zerbitzura,
kalitatezko
altzariak
eskaintzen

ederTU

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero, 2 behea.

☎ 76 43 07

EXUKLIN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.

Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Merkatuko dendarien proposamen berria

Trasladua maiatzean egin beharrean abuztuan egin ahal izatea espero dute

Pasa den apirilaren 21ean alkatearekin bildu ondoren, astelehenean azokako 7 komertziantek proposamen berri bat aurkeztu zuten Udaletxean. Komertzianteen kolektiboak beren postuak azoka berriko lehen solairuan joatea eskatzen dute, bigarren solairuan mugimendu komertzial eskasa egongo dela uste baitute.

Era horretan eginez gero, dendarien hitzetan, "anbulantei dagozkien m2ak % 50ean baunditzen dira, lehen solairuan baserritarrentzat izan daitekeen espazioa

lortzen da eta, salmenta puntuak aste osoan izanik (eta ez larunbatetan bakarrik) komertziantek eta baserritarrei salmentarako aukera gehiago ematen diegu. Era berean, bost egunetako mantentimendu gastuak gutxituko lirakeke, sotoa publikora itxi bait daiteke".

Komertziantek postu bakoitzeko 3.000.000 pza. eskeintzen dute eta ordainketarako baldintzak negoziatzea aipatzen dute, "gaurko egoera ekonomiko larria dela eta, bai lehen pisuko butsartea estaltzeko eta bai postuetarako suben-

tzioak baino errezagor ditzake eta". Komertzianteen idatziaren azken puntuan jasotzen denez, "Plazako merkatutik bota gintuztenetik oraingo azokan lari gara lanean eta urtetan alde batetik

bestera ibili gara bueltara. Horregatik, trasladu berrirako, Udalarekin akordio batera iritsi eta berau abuztuan egin ahal izateko prorroga bat lortzeko itxaropena daukagu".



Udalak merkaturan hobekuntzak egiteko subentzioak lortzea espero dute komertziantek.

ETEO

"ADMISNISTRAZIO + INFORMATIKA + MARKETING"

1994-1995 KURTZOAN ESKEINTZEN DIREN IKASKETAK

IKASKETA ERTAINAK:

- **Goi Mailako Batxilergoa.** "Administrazioa eta Gestioa (I.E.E. II) A eta D ereduak.
- **Lanbide heziketa:**
 - Administrazio, marketing eta informatika arloak.
 - Hirugarren mailako moduloak
 - Gestio Programatzailea
 - Nazio Arteko Merkataritza

IKASKETA HAUEK BUKATU ONDOREN, UNIBERTSITATE MAILAKO "ENPRESA ZIENTZIETAKO IKASKETAK" BERTAN JARRAITZEKO POSIBILITATEA DAGO (16-21 urte)

UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK:

- **Enpresa zientziak**
 - Finantzak eta Kontabilitatea
 - Marketing eta Komertzial arloa
 - Informatika

Informazioa

ETEO. San Lorentzo auzoa. z/g.
Tfnoa: 78 13 11 OÑATI

Aurre-inskripzio epea:
 • **Ikasketa Ertainak** •
 Maiatzaren 4tik 8ra.
 • **Enpresa Zientziak** •
 Maiatzaren 23tik
 Ekainaren 24era

Legedia

Zerga aitorpena

- Nobedaderik ba al dago aurtengo Zerga Aitorpenari dagokionez?

- Ez, ez da aldaketa nabarmenik baina etxea erosterakoan kontuz ibili beharra dago: mailegu bat eskatzen baduzu, posible da interesengatik eta maileguaren amortizazioagatik deduzitzea.

Esate baterako, etxea 10 milioi ordaintzen baduzu, jendeak askotan zifra bajuago bat jartzen du, 8 milioi adibidez. Kasu horretan notaria eta zergetan aurrezten duzu eta ezin duzu guztia deduzitu, beraz ez da errentagarria.

- Bikoteen kasuan, bananduta ala aitorpen bateratua egitea komeni da?

- Ezkondutako bikoteetan kasu ezberdinen arabera azertu behar da, batzutan bi soldata ertainekin 100.000 pta. ko aldean egon daiteke eta.

Bestalde, ezkondu gabeko bikoteek ez daukate

bateratua egiteko aukerarik, beren kalterakoa, azken batean "taulak" berentzako gogorragoak baitira.

- Eta ezgaitasun pentsiorik dutenek eta langabetuek, zer?

- Orainarte ezgaitasun



Matilde RIVAS

(abokatu)

pentsioa zutenek eta langabetuek ez zeukaten Haziendari ordaindu beharrik baina datorren urtean ordaintzen hasi behar dute eta pentsioek behera egingo dute. *Renta exenta* izatetik *Renta*

sujeta izatera pasako dira aipatutako pentsioak eta langabetuak.

- Lanean hasi berri direnek ere aitorpena egin behar dute?

- Milioi bat pezetatik gora kobratzen dutenek aitorpena egiteko beharra daukate eta gutxiago kobratzen baduzu, ziur egon Haziendak retentutakoa itzuliko dizula, baina Haziendak ere ez dizu ezer oparituko. Urtean milioi bat baino gutxiago irabazi ezker, ez dago aitorpena egin beharrik baina argi dago dirua jasoko duzula.

Bestalde, dirua aurreztuta dutenek ere zerga aitorpena egin dezakete Haziendak diru bat erretentitzen bait dizu aurreko kutxa edota bankuaren bitartez. Baina hori norberaren esku dago, Haziendan *fitxatuta* egotea nahi duzun edo ez.

- Nora joan behar da aitorpena egiteko?

- Inpresoa erosi (25 pta., ez dute etxera bidaltzen) eta nozio minimoak edukita, norberak egin dezake, ez da oso konplikatu. Kontrako kasuan, komenigarria da aholkatuko dizun lagun batengana edo aholkularitza batera joatea. Eta beti ere aitorpena errebisatzea eskatuko nuke, batzutan akats nabariak egon bait daitezke.

"Ezkondutako bikoteek bakarrik daukate aitorpen bateratua edo banandutakoa egiteko aukera"



Zerga aitorpena ekainaren 25era arte egin ahal izango da.

MUJIK A

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8


☎ 76 28 67

BERGARA

MAKAILO

Makailau kazuelak **ETXEA** gertatzen ditugu

Ibargarai 15



GOIMAILAKO OSTALARITZA ESKOLA
ESCUELA SUPERIOR DE HOSTELERIA

Oñati

1994-95 IKASTURTERAKO ESKAINTZA

3. mailako moduloa:

**HARRERAKO
TEKNIKO
ESPEZIALISTA**



2. mailako moduloa:

**SUKALDARITZA
TEKNIKO
LAGUNTZAILEA**

IZEN-EMATEA: Maiatzaren 4tik 18ra. Arrasaten Eskola Politeknikoan.
INFORMAZIO GEHIAGO: ☎ 76 61 94 - 71 61 90

Duela 8 urte Azpeitiko 3 gaztek kaletik ihes egiteko gogoaz zutela eta, Pikulitxako baserri zaharra erosi eta poliki-poliki berriztu egin dute. Aintzinako Pikulitxaren paretak bota eta igeltsero baten laguntzaz horma berria egin zuten. Ondoren euren lagun eta senideen laguntzaz baserriari erabateko itxura berria eman zioten.

Orain baserrian 8 pertsona bizi dira eta bakoi-tzak bere lan propioa du. *"Gure asmoa aintzinako baserriak bizi ziren bezala bizitzea da. Lehenengo baserrietan familia handiak bizi ziren eta hainbat lan abarkatzeko aukera zuten. Orain gure istoria antzerakoa da, ez gara familia bat, baina lana denon artean banatzen dugu"* esan digute.

Filosofia hori praktikan jarriz baserrian, 6 hektareatakoa, gazta, ogia, ortua etab egiten dute. Pikulitxan oiloak, 50 ahuntz, erlauntzak eta 80 ardiko artalde bat ere badute. Duela 3 urtera arte bertako bi lagun kalean lanean izan dira, baina orain lana utzi eta baserrietik bizi dira. *"Baserria egokitzeko eta berrizteko dirua kaletik atera dugu. Baina gure hasierako asmoa baserrietik bizitzea zen eta orain guk ateratzen ditugun produktuekin bizi gara. Ogia egite-*



Aintzina erromeriak izaten ziren Pikulitxan.

Pikulitxa...

bizitzeko beste modu bat

Joan zaituz Pikulitxara! esaera oso ezaguna da gure artean, baina baserri hau oraindik ere bizi da. Antzuolan dagoen arren, aintzina Bergara eta Elosutik gazte asko erromerietara joaten zen. 1967an baserria erre egin zen eta orain, bertan, 8 gazte bizi dira. Baserria goitik behera berriztu dute eta bertan ateratako produktuak bizi dira.

ko labe bat jarri dugu eta Azpeitian saltzen dugu, bai ogi normala eta bai beltza. Hilean 1.000 kilo ogi normal eta 500 beltz egiten dugu batz bestea. Hortik ateratzen

dugu dirurik gebiena".

Berrinkuntzak Pikulitxan

Pikulitxa duela urte batzuetatik hona berrizten joan da, baina lana ez da batere erraza izan. Orain badute kotxea, bidia, telefonoa eta argi indarra, halere bidia konpontzeko asmoa dute. Kaletarrak izanda, inguruetakoko baserrietarrek, hasiera batean behintzat, begi ez oso onez ikusten zituztela aitortu digute.

"Hasieran inguruetakoko baserrietakoek ez zuten sinisten aurrera irtengo ginenik. Inguruetakoko baserrikoekin barremanak nabiko onak dira, baina beti dago errezelo hori".

Gu izan ginenean baserrian 4 azpeitiar, 4 azkoitiar eta bergarar bat zeuden. Nahiz eta urte hauetan bertatik jende asko pasatu den. *"Hona gutxi gorabehera edonor etor daiteke. Baina oso argi eduki behar du, baina nabiko gogorra dela. Alde batetik baserriko lana*

"Goitik behera berriztu ondoren, Azpeiti-Azkoiti aldeko 8 gazte bizi dira aintzina fonda izan zen baserrian"

dago eta bestetik jendearekin bizitzen ikasi behar du". Egun normal batean Pikulitxan bizitza goizeko 7etan hasten da eta urtaroaren arabera bakoitzak lan batzuk bete behar harko ditu. Gosaltzeko orduan lan banaketa egiten dute, batek gazta egiten du, besteak ortua zaindu. Ogia egiteko labea ere goizero martxan jartzen da. "Lana egiteko orduan ondo konpontzen gara. Baina normala da borrenbeste jende batera bizi izatean noiz behin-ka baserrealdiren bat izatea".

Baserritik bizitzea

Euren helburuetariko bat baserritik bizitzea da eta baserriarentzat garai onenak ez diren arren, nahikoa lanekin aurrera irtetzea lortzen ari dira. "Baserriak eman ematen du, baina oso justu bizi gara. Jateko gebiena bertatik ateratzen dugu eta kalera parranda egitera ere bajatzen gara, baina beti diru gutxirekin. Lagunak baditugu eta eskerrak eurei". Pikulitxan bizi direnak 20 eta 31 urte bitarteko gazteak dira eta motibazio ezberdinak izan dituzte, baina beti ere kaletik ihes egitea izan dute helburua.

Guztiak berdinak

Baina gauza guztietan bezala, euren bizimoduak baditu bi aurpegi. "Bidearen aurka, kotxearen aurka, telebistaren aurka, argi indarraren aurka, telefonoaren aurka, baina gero horren beharra dugu. Teoriaz, gauza borien aurka gaude, baina beharrek asko erakusten dute eta beste modu

batera bizitzen ikasi ez dugunez, gauza horien beharra ere badugu".

Gazte baserritarrak bertan dauden bitartean guztiak berdinak dira eta dirua ere kutxa amankomun batean sartzen dute. Gauza bat erabaki behar denean guztien artean erabakitzen dute, baina asanbleak gauzak gaizki doazenean egiten dituzte. Azpeitian nahiko eza-gunak diren arren, adierazi digutenez Bergaran eta Antzuolan ez dira eza-gunegiak. "Bergara eta Antzuola aldean askok uste du baserria droga-zaleentzako desintoxikazio zentro bat dela. Izan dira drogazaleak, baina ez du funtzionatu. Ezin izan dute droga laga, hemen lan asko daukagulako, horiek atentzio berezia behar baitute eta hemen ezin izan diegu eman".

Joan zaitez Pikulitxara!

Pikulitxan gerra aurretik jaiero erromeria izaten zen eta bertara Antzuola, Bergara eta Elosuko gazteak joaten ziren. Jai egunetan erromeria izaten bazen, urtean zehar Pikulitxa fonda zen eta hortaz aparte, inguruko baserrietakoek bertan aurkitzen zuten erostekoa, denda bezela funtzionatzen baitzuen. Pikulitxaren azken jabea Pedro Alberdi azpeitiarra izan zen eta bertan bizitzeari, 1960ko Aste Santuan utzi zion, 1967an baserria erre egin zelarik. Pikulitxak bazuen bere jai eguna, berau Natibitate biharumunean, abenduaren 26an, San Esteban, izaten zelarik. Pikulitxa Antzuolan dagoen arren, gure herrian oso ezaguna da eta oraindik ere, norbait urrun ikusi nahi dugunean, "Joan zaitez Pikulitxara" esatea normalena da.



Gaur egun zortzi gazte eta haur txiki bat bizi dira eta lurrak ematen dituen fruituetatik, eta ogia eta gazta saltzetik bizi dira.

euskara...

EGIN EZAZU EUSKARAZ

Nik nere ikastetxean oso ondo pasatu dut euskararen aldeko kanpaina egiten. Gauza asko egin ditugu: zenbatzeko gauzak, sokasaltoan egiteko abestiak eta abar...

Euskaraz hitz egiteko *pins* batzuk ere egin ditugu. Horregatik egin da kanpaina hau. Guk euskaraz hitz egiteko, eta ikasteko hizkuntza hau, gaztelaniaz egiten dugun bezalaxe.

Hitz egin euskaraz esaten dizuet nik.

MIREN URZELAI

3. MAILAKO IKASLE BAT

BERGARAKO KUTSADURA

Bergaran dagoen kutsadura gero eta larriagoa da. Zergatik ez dute ipintzen urgarbigailu bat lantegi bakoitzean? Kaletik bazoaz eta ibaiari begiratzen badiozu lantegien errua dela pentsatzen duzu eta ez dugu pentsatzen gure errua ere badela. Ez zaigu ezer kostatzen zaborrak poltsa batean ongi gordeta dagokien lekuan uztea, pilak biltzea edota beste zenbait gauza egitea.

Argi dago denon errua dela. Denok arazoa konpontzeko ahaleginak egiten baditugu zeozer eskuratuko dugu. Horrela jokatuz gero, gure Planeta garbiagoa izango da eta dena berdea azalduko da gure begien aurrean.

EVA. 8. MAILA.

EUSKARA DESAGERTZEN BADA...

Ez dago esan beharrik euskera desagertzeaz dagoela eta hori gerta ez dadin gure hizkuntzaren aldeko kanpaina bat eratu dugu gure eskolan. Euskera desagertzen bada, Euskal Herria ere desagertuko da. Beraz, denok lagundu behar dugu eta gure aldetik ahal dugun guztia ipintzen badugu Euskal Herria salbatuko da.

Hau dela eta, San Martin eskolan gauden guztiok euskeraren aldeko ekintzak egiten gabilta. Nola ikasleok ez dakigun ondo zer egin, irakasleek lagundu digute. Une honetan eskolako hormetan eskegitzeko kartelak egiten gaude. Atzo kanpainari lotuta dauden "lemak" egin genituen. Txartelak ere banatuko dizkigute irakasleek. Txartel horiek eramateak euskeraz hitz egin nahi duzula esan nahi du.

Kanpaina honen bidez denok gauzak konpontzea espero dugu.

MANUEL, 8. MAILA.

SAN MARTIN IKASTETXEA

13. ZENBAKIA

BERGARAKO JAIAK

Maiatzaren 20an guk asko maite eta urtero gogotik ospatzen ditugun jaiak hasiko dira, gure herriko jai maiteak, Bergarako jaiak.

Aspaldiko ohitura bati eutsiz, jaiak Bitorianatxoren jeitsiera eta etxafleroen jaurtiketaz hasiko dira. Gero moeta askotako dibertsioak izango dira: ospe haundiko musika taldeak, hankandiak eta batez ere gogoz atsegin zaizkigun barrakak. Horrezaz gain Udalak antolatutako hainbat joku eta ekintza ezberdin egongo dira.

Bergarako gazte taldeek kasakak egiten dituzte haien artean ezberdintzeko aspaldian sortu zen ohitura bati jarraituz.

Hala eta guztiz ere, neretako jaietan ospatzen den ekitaldirik onena gaueko berbena da. San Martin enparantzan egiten da. Eta orduki t'erdia arte irauten du. Jai giro ederra sortzen da eta jendeak primeran igarotzen du gogo bizian dantzatzen.

Neri gehien gustatzen zaizkidan musika taldeak "Lisker" eta "Izadi" dira.

Azken egunean, Bitorianatxo suziri eta jendearen txalo haundien artean agurtzen da hurrengo urtera arte. Jendeak, bitartean, kolore bizietako kasakak astinduz agur esaten dio.

Bergarako jaiak zoritxarrez amaituak dira.

JOANA. 7. MAILA.

ILARGIA ITSASDAN

Bazen behin Rodolfo izeneko mutil bat. Egun batean itsasora joan zen aiton-amonekin. Uretan ilargia ikusi zuen. Gero etxera eraman zuen eta lagunak egin ziren.

Beti futboleko jolasten zeuden eta urteak pasa ondoren Rodolfo haunditu zen. Bera Rodolfo Alkiza futbolaria egin zen eta ilargia berriro zerura igo zen.

CRSITINA. 4. MAILA.

ERABAKI GARRANTZITSUA

8. mailako neska-mutilek erabaki garrantzitsu bat hartu behar dugu gure etorkizunari begira. Jendeak uste du Lanbide Hezkuntza Institutora, Batxilergo Institutora edo beste leku batera joateko erabakia hartzea oso erraza dela baina hori gezur hutsa da. Ni, adibidez, 8. mailan nago eta oraindik ez dakit nora joan; oraindik ez dut erabaki zer egin.

Erabaki hori, nere ustez, oso zaila da lagunengandik banandu behar eta gero lanbide bat aukeratu behar baita. Irakasleak berriak dira, eskola berria, jende berria eta bakarrik aurkitzen bazara askoz gogorragoa da.

Gai honetan irakasle eta gurasoek beren iritzia eman ahal digute baina gu gara erabakia hartu behar dugunak.

Ongi erabakitzea oso zaila da, hala eta guztiz ere, gauzak ondo egiteko asmoa eduki behar da. Ondo erabaki!

YOLANDA. 8. MAILA

URA

*Ur zoragarriak!
Zure begiak
ura bezalakoak dira.
Zure ileak
urra bezalakoak dira.
Zure aurpegia
printzesa batena bezalako da.
Zure gorputza
Claudia Shiffer bezalako.
Zoratuta naukazu!*

OSCAR

Beldurrezko filmak atsegin zaizkizu?



Jon Larrañaga

15 urte, ikaslea

Ez, ez zaizkit gustatzen, nahiago dut abenturazkoak, beldurrezkoetan gaizki pasatzen dut eta.



Ascensión Díaz

37 urte, langilea

Ezta pentsatu ere. Oso nerbiosa jartzen naiz eta nahiago dut ez ikustea. Gauza alaiagoak badira, askoz hobe.



Patxi Berraondo

47 urte, langilea


Bai, asko gainera, Dracula, misteriokoak... Baina oraingo pelikulak beldurra baino gehiago, iguina ematen dute.



Ana Arevalillo

27 urte, langilea

Segun zer nolako pelikulak diren: nahiago dut tentsiozkoak aizkora eta horrelakoak agertzen direnak baino.



Alberto Busca

32 urte, langilea

Batzuk bai, terrore klasikoa batipat: *La novia de Frankenstein...* etab. Oraingo pelikulak ez gehiegi.



Miren Romaratezabala

38 urte, langilea

Bai, ahal badut joango naiz orain hasi den ziklo horretara. Lehengo filmak gustatzen zaizkit batipat.

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051.

R.S.I. 209374 -SS

BERGARA

TOSHARE

• ILEAPAINDEGI MISTOA •
• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

TXISTU MOTOR

KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA

Volkswagen t Idea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa
☎ 76 09 31 BERGARA



Karramarroa eta Goardia Zibila


Magia eta dotoretasunik gabeko garaia bizi dugu. Korrupzioz jositako haize boladak giroa zikitzen eta ustel usaia zabaltzen duen sasoiari, ziria sartzen hain ikasiak diren pertsonak, Jainko. Baina, kontu beraren inguruan ez jarduteagatik (kokoteraino naukate!), horra hor "anekdota surrealista":

Joan den astean, Langraitzen pasadizuan zegoen 24 urteko presoak egundoko ezustekoa zertu zuen (Zuzendaritzaren esanetan hamabosna urtetik behin gertatzen den horietakoa): 4 metroko pareta 2 igo, alanbrada pasa eta hanka! Orduerdia bueltan zen. Irtenaldia sartu-irten, antza.

Komunikabideek jasotako berria dugu berau. Ez, ostera, karramarroak noiz harrapatu arrantzan zebilen gizagaixoa -errorez eta bere zoritxarrerako- iheslaritzat jo zuenik Goardia Zibilak. Beldurra mortala jasoko zuenik, dudarik ere ez. Honi, Zadorra ibaiaren inguruetan, berriz, iji eta aja egoteko gogoia kenduko zitzaion...

Portzieto, miseria artetik urrunduz, eta maiatzean gaudenez, Frantzia 68an eman zena gogora ekartzeak egingo liguke mesederik. "L'imagination prend le pouvoir" (imajinarioak boterea har beza) eta "Dessous les pavés, c'est la plage" (zoluren, azpitik, hondartza) maximen premia galantean gaude.

Ainhoa ALTUNA



Mugak, beti muga

Kanpotik etorri behar izan zaigu lagun bat Antzuola eta Bergararen arteko lehia berriz pizteko. Luis Mari Zalduda bere izena. Bejondeiola. Halere, ez dakit Bergaran gogo onez hartuko duten hara hurbiltzen denean. Bere burua Antzuolako mapa berriaren egile bezala aurkeztu zuen honek perla ederra bota zigun Galartza auzoko Amezt-Berri eta Portu baserri buruz: Antzuolakoak izan arren Bergaran ordaintzen zituztela zergak ordurarte.


Begarako Udalaren erantzuna berehalakoa izan zen, berak ez duela haien zergarik kobratu. Antzuolako Udalak eta maparen benetako egileak, Iñigo Ramírez de Okarizek, hala errekonozitu dute. Bergaran gaiak batere oihartzunik ez duela izan jakin dut. Normala.

Mugetatik gerrak, borrokak, saltsak... Metro bat haruntzago ala honuntzago. Kontuok negargura ematen dute. Iñigo Ramírezek osatu duen maparen grazia ez dago mugetan, baizik eta muga barruan agertzen diren hainbat detailetan, baina azalari, mugei, eman behar garrantzia.

Sua indartzeko asmorik gabe, gogoratuko nuke Gorkako uren kontua ere badela hor tartean, orduan bergararrak izan zirela inolako baimenik gabe Antzuolako sailetatik ura eramane zutenak. Oraindik konpontzeke daukate gai hura, Diputazioan bueltaka omen dabil. ez dut nik entzun Antzuolako ganadurik egarriak hil denik. Pertsonarik ere ez.

Bitartean, Iker Muruamendiaraz pilotaria herrien arteko txapelketa Antzuolarekin jokatzeko. Batzuren pozerako, beste batzuren adar jotzerako eta bergararren kalterako. Gu kanporatuta eta bergararrak aurrera, euren klubean daukaten pelotaririk onena falta arren. Halakotxeak sortzen dira mugak direla eta ez direla. Mugak, beti muga.

Joseba LEZETA



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51



ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Aranzadi Ikastolako ikasleek grabatu egin zuten alkatearekin izandako elkarrizketa, martxan jarri duten irratian emateko asmoz.

Alkatea ikasleekin

Victoriano Gallastegi alkatea **Aranzadi Ikastolako** 3. mailako ikasleekin bildu zen pasa den apirilaren 21ean. Gaztetxoek nagusiki Bergarari buruzko galderak egin zizkioten eta alkateak beren kezkek argitu zizkien. Bestalde, 3. mailako 80 bat neska-mutikok Arrasateko Kiroldegian ospatu zen Deba Garaiko Eskola Arteko Abesbatzen Topaketan hartu zuten parte, bailarako beste 13 talderekin batera. Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolak antolatuta, Aranzadikoek badaramatzate urte batzuk bertan abesten.

BOTAKoen itxialdia

BOTA talde antimilitaristako 17 lagun inguruk itxialdia eta baraualdia egin zuten ostiral arratsaldetik igandera bitartean Miguel Altuna Institutuko aretoan, preso diren intsumisoei beren elkartasuna adierazteko. Igandean, 5ak aldera, bukatutzat eman zen itxialdia eta jarraian BOTAKoek inguruko herrietan zehar kotxe karabana egin zuten.



Larunbat goizean Miguel Altuna institutuan BOTAKo jarraitzaileei ateratako argazkia.



**DEBA
GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

**GURIA
Taberna**

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

CAMACHO

**Drogeria
Usaindegia**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA



Gaztetxoak Txindokiko gailurrean pasa den apirilaren 24an.

Txindokira mendi-irteera

Pasa den apirilaren 24ean **Mendi Asteari** amaiera emateko gaztetxoek mendi irteera egin zuten Txindokira. 25 gazte motxila bizkarrean hartu eta goizean goizetik abiatu ziren, zenbait *sberpen* laguntzaz. Azkenean, hamaika izerdi bota ondoren, lortu zuten bai gailurra eta gure mendizale gazteek kamara aurrean, harro-harro, jartzeko astia ere izan zuten. Hori bai sasoia gure mendizale gaztixoena!!

Santa Krutz eguna

Irazabal auzoko **Santa Krutz** ermitan meza izango da igande honetan, hilak 8, maiatzaren 3ko Santa Krutz eguna ospatzeko. Mirentxu Goñik adierazi digunez: "Santa Marinar Anjelus kanpaiak beste doinu bat zeukan lehen; "letxuga-kanpaia" esaten zaiona eta azken urtetan Natalio Juaristi eta Juan Idigorasak eskuz jo dute: aurten torrea konpondu behar dela eta ez da jo".



Meza ostean salda banatuko da igandean. Argazkian, joan den urteko irudi bat.

Zertan dibardute ba?



Dani Santos Pol-Pol Argazki Taldeko 26 urteko kideak 3. saria eskuratu du Salamancako Estatu mailako mendiko argazkien lehiaketan. Danik 30 karrete, kirol materialean 15.000 pta. eta liburutan beste 5.000 jasoko ditu sari gisa. Azkenaldian, Santosek Emakumearen Astearen Argazki lehiaketako lehen saria irabazi du eta, era berean, Gasteizen irabazle, Amurrion bigarren eta Planeta sariko finalista izan da. Berak esaten duen moduan, "*ona da Euskal Herritik kanpora Pol-Pol Argazki taldearen izena zabaltzea, batez ere mendiko argazkiekin. Hala ere, oraindik badaukat sari bat pendiente: Bergara Hirian zerbait lortzea*".

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



76 20 61

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

Maite Suinaga

Maite Suinagak 15 urte daramatza DEIAko korrespontsal modura. Loiolako Irratian ere entzun ahal izango diogu eta gaur egun Orfeoian abesten du, "gurasoengandik datorkit musikazaletasunari esker, aita (armonika) eta amak (panderoa) herriko auzo-jaiak alaitzen bait zituzten".



"Egunez egunkaria irakurri eta gaez irratia entzutea gustatzen zait. Nere kantanterik gogokoenak Domingo eta Caballé dira eta daukadan oroitzapenik onena, txikitako Gabonak. Aktore bat? Alfredo Landa"

- Egunkaria ala irratia?
- Egunez egunkaria, gaez irratia.
- Nori egingo zenioke elkarrizketa?
- Calcutako Madre Teresari.
- Kazetari bat.
- Josean Alkorta.
- Jose Maria Garciari entzuten diozu?
- Bai.
- Irrati eta telebista programa bana.
- Telebistan "III Milenio"; irratian "La linterna".
- Kantanterik gogokoena?
- Plácido Domingo eta Montserrat Caballé.
- Eta abesti bat?
- Albinoniren "Addagio"a.

- Udan pizina ala hondartza?
- Hondartza.
- Solariumean izan zara inoiz?
- Bai.
- Aktorerik gustokoena.
- Alfredo Landa.
- Pelikula bat.
- Lo que el viento se llevó.
- Oroitzapenik onena?
- Txikitako Gabonak.
- Etxezuloa zara?
- Bai.
- Pazkuak Bergaran ala kanpoan?
- Bergaran.
- Bazkaririk gogokoena?
- Arraultzak patata frijituekin.
- Pertsonaia historiko bat.
- Nelson Mandela.
- Intsumisoengatik baraualdia egingo zenuke?
- Euren alde nago. Eta baita euskal preso guztiak Euskal Herriratzearen alde.
- Senarrak atera dizun argazkirik politena?
- Soltera nintzela, Errekalden.
- Jokuan egiten duzu?
- Kartetan (Rami), Bonolotoa eta lotoa.
- Amets bat.
- Pakea munduan.
- Zer izan nahi zenuen txikitari?
- Bailarina.
- Zerk gorriarazten zaitu?
- Sofokoak.



ARANE
BIDRIERA ARTISTIKOAK

Muralak, bidrierak, grabatuak, biselatuak, ispiluak eta era guztietako kristaleria egiten dugu.

Iñigo Zabaleta ZUZENKO SALMENTA

Arane-Barrengoa baserria. Arane auzoa 20.570 BERGARA ☎ 76 20 56

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

Amets



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
 - Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR



Amaia Zabaleta

AMAIA ZABALETA dugu aste honetako BONOFOTOko irabazlea aurreko galdera berak asmatu du eta. Hain zuzen ere Masterrekako Intzaneak bezala ezagutzen dugun etxearen izena galdetzen genuen eta erantzuna **Zuloaga etxea** zen. **Amaiak** asmatu du eta berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Amaia**, eta besteok segi jokatzeko.

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

BATXILERGO OROKORRA (REM) 14-16 urte

- ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), 12-16 urte artekoa zikloa ezarrita dugu orain dela 7 urtetik, OHO bukatuz gero jarraipena eskainiz.
- ✓ Heziketa indibidualizatua. Teknologia eta informatika arloen ezagupena. Ikerketa metodologikoa.
- ✓ Ikasketa hauekin, ikasle bakoitzaren gaitasunak eta atsegin dituen arloak landu nahi dira.
- ✓ SARRERA BALDINTZAK: OHOKo 7. maila osorik aprobatuta eta 8. maila kurtsatuta eduki behar dira.

MATRIKULAZIORAKO EPEAK:

- Aurrematrikulazio epea: maiatzaren 4tik 18ra.
- Matrikulazio epea: uztailaren 1etik 8ra eta irailaren 7tik 12ra.
- Idazkaritzako ordutegia: 9.30-11.30 eta 16.30-17.30.

LANBIDE HEZIKETA SANITARIOA- GUTXITU PSIKIKOEN HEZITZAILE

- ✓ Gutxitu Psikikoen Hezitzailea gutxituaren heziketaren arduraduna da, bere ikasketak bideratuz, ikasgaiez eta ohiturez jabetu dadin laguntza eskainiz eta motibazioa ikaslearengan sortaraziz.

✓ SARRERAKO BALDINTZA:

Ondorengoetatik bat bukatuta eduki behar da:

- REM I. zikloa, LH I. zikloa edota BUP 3. maila.
- UBI egindako ikasleek edo LH II.ko beste adarretakoek ikasgai komunak konbalidatuta edukiko dituzte.

✓ LAN IRTEERA POSIBLEAK:

OHOKo ikastetxeetan Heziketa Bereziko laguntzaile, eguneko zentruetan, egoitzetan, tailer okupazionaletan eta ikastetxe berezietan hezitzaile, tailerretako arduradun, etxerako asistentzia, aisialdiko edo udalekuetako begirale...

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Elizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00

ELECTRICIDAD

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

☎ 76 00 00

1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura IND. GOL	34	18	16	2	0	86	25
2. Errotagain	29	18	14	1	3	85	33
3. Angiozar	27	18	12	3	3	92	48
4. Tokieder	25	18	11	3	4	96	39
5. Usoa	23	19	9	5	5	65	47
6. Bar Canalejas	22	18	9	4	5	62	53
7. Arloteak	19	18	8	3	7	52	57
8. Bildurbarek LAM	18	18	10	0	8	80	74
9. Mongatxurra	18	18	9	1	8	68	53
10. Ogizun Okind.	17	18	7	3	8	75	58
11. Os Jardineiros	16	18	6	4	8	66	80
12. Guadalest	16	19	6	4	9	45	70
13. OH Zerezos	16	19	7	3	9	57	76
14. Ezinleike	16	19	6	4	9	50	80
15. Nahikari Hool.	14	18	5	4	9	44	54
16. Akort Ariznoa	14	18	6	2	10	55	85
17. Kriterium	12	18	4	4	10	44	62
18. Kriston Potruak	9	19	4	2	13	68	105
19. Soropotroak	8	19	4	0	15	51	80
20. Shaktale	8	18	3	2	13	39	101

emaitzak

Usoa	1 1	Ezinleike
Errotagain	5 2	Akort Ariznoa
Kriston Potruak	0 1	Kriterium
Arloteak	4 1	Os Jardineiros
Mongatxurra	1 4	Bar Canalejas
Madura	1 1	Nahikari Hool.
Usoa	8 2	Guadalest
Soropotroak	3 5	Ezinleike
Errotagain	6 2	Ogizun
Kriston Potruak	0 1	OH Zerezos
Akort Ariznoa	1 8	Tokieder

hurrengo partiduak

• IGANDEA •
barruan

- 9.00: Mongatxurra-Os Jardin. (Shaktale)
- 10.00: Arloteak-Shaktale (Errotagain)
- 11.00: Errotagain-Kriterium (Canalejas)
- 12.00: Madura-Bar Canalejas (Bildurb.)
- 13.00: Bildurbarek LAM-Ogizun (Madura)
- 16.30: Akort Ariznoa-Nahikari (Tokieder)
- 17.30: Tokieder-Angiozar (Nahikari Hool.)
- 18.30: Amozkibar-Kriston P. (Angiozar)

2. mailakoek amaitu dute liga

Kopako partiduak jokoan

2. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	43	25	21	2	2	127	58
2. Kalimotxo	42	25	21	0	4	154	64
3. Revienta	41	25	20	1	4	114	62
4. Ozaeta	39	25	18	3	4	151	61
5. Ufala	39	25	19	1	5	118	52
6. Hartu Zamak	38	25	18	2	5	114	70
7. Etxagi	36	25	17	3	5	156	92
8. Uve Bikoitza	34	25	16	2	7	137	93
9. Eri	33	25	15	3	7	119	75
10. Amozkibar	29	25	13	3	9	103	70
11. Ari Ari	28	25	14	0	11	118	114
12. Txipiron	25	25	10	5	10	71	76
13. Igandekoak	24	25	12	0	13	91	104
14. Krai	24	25	12	0	13	108	105
15. Kirolzaleak	21	25	10	1	14	83	119
16. Paok San Juan	20	25	9	3	13	77	97
17. Matalascañas	19	25	9	4	12	66	86
18. Los Txupeta	18	25	8	2	15	65	90
19. Labegarieta	15	25	6	3	16	48	123
20. EH Biterrak	14	25	5	4	16	58	99
21. Aldoka Maldoka	14	25	6	2	17	59	125
22. Eusebio II	13	25	6	1	18	67	128
23. Pata Negra	13	25	6	1	18	64	133
24. KK Usaina	11	25	5	1	19	58	78

emaitzak

Igandekoak	6 7	Uve Bikoitza
Labegarieta	3 4	Arkupe
Kirolzaleak	4 12	Revienta
Ufala	0 2	Ozaeta
Eusebio II	4 5	KK Usaina
Txipiron	5 3	Aldoka Maldoka
Etxagi	7 14	Krai
Pata Negra	3 5	Los Txupeta
Kalimotxo	13 4	Paok San Juan
Ari Ari	10 4	KK Usaina
Amozkibar	3 4	Eri
EH Biterrak	1 2	Eusebio II

hurrengo partiduak

• IGANDEA •
kanpoan

- 9.00: Los Txupeta-Txipiron (Labegarieta)
- 10.00: Eri-Labegarieta (Krai)
- 11.00: Krai-Kirolzaleak (Revienta)
- 12.00: Revienta-Aldoka Maldoka (Sorop.)
- 13.00: Soropotroak-Igandekoak (Aldoka)
- 16.30: Ari Ari-Eusebio II (Ozaeta)
- 17.30: EH Biterrak-Ozaeta (Arkupe)
- 18.30: Paok S.J.-Arkupe (EH Biterrak)

Txinpartak

▼ Bigarren mailan amaitu da liga. Horrela, bada, Arkupe, Kalimotxo, Revienta eta Ozaeta taldeak lehen mailan izango ditugu datoren urtean. Ufala, Hartu Zamak, Etxagi eta Uve Bikoitzak, ostera lehen mailara igotzeko promozioa jokatuko dute.

▼ Lehen mailan, berriz, igandean jokatuko da azken jardunaldia. Talde batzuk amaitu dute dagoeneko, baina beste batzuk ez, eta gauza asko erabakiko dira domekan. Direnak direla, Shaktale, Soropotroak eta Kriston Potruak taldeek mailaz jeitsiko dute.

▼ Bigarren mailako taldeek aste honetan ekingo diote kopako partiduak jokatzeari. Antolaketa Batzordeak, denboraz justu samar dabiltzala eta, astean zehar partidu batzuk antolatzeke asmoak azaldu ditu.

Golegileak

LEHEN

MAILA

- 1. F. Salinero (Ogizun) 44
- 2. I. Pagaldai (Angiozar).. 28
- 3. I. Mujika (Tokieder) ... 23
- 4. B. Jimenez (Kris. P.)..... 23
- 5. Arriaran (Angiozar) 21

BIGARREN

MAILA

- 1. Agirezabal (Kalim).... 68
- 2. Agirrebeña (Ozaeta) ... 59
- 3. J. Izuskiza (Etxagi) ... 54
- 4. J. Larrañaga (Eri) 49
- 5. Agirezabal (Ozaeta) .. 43

Asier Garitano

Asier Garitano bergarar jokalaria igandean jokatu zuen ligako azken partidua 2. B mailako Cartagena taldearekin. Nahiz eta Manacor-i 1 eta 2 irabazi Cartagena ez da gutxiatik igoerako play-offetan sartu, 6. postuan sailkatuz 45 puntu eta 7 positiborekin.

- Nola baloratzen duzu Cartagenan egindako denboraldia?

- Pena bat izan da azkenean play-offetan ez sartzea. Figueresek partidua amaitzeko 5 minutu falta zirela berdin duen At. Grameneten aurka eta azkenean beraiek sartu dira. Baina normala da; katalanen artean jokatzeko zuten eta euren artean konponduko ziren. Kontrako kasuan Figueres, Hospitalet eta gu berdinduta geratuko ginen eta gu jokatu genuen play-offa. Baina...

- Zu zeu nola ibili zara?

Cartagena taldeko golegile bergararra

- Pozik nago; hasieratik jokatu dut eta 12 gol egin ditut. Azken fasean oso ondo ibili gara gainera; Pedreño entrenatzailea bota zutenetik gauzak hobeto joan dira; Joaquin bigarren entrenatzailea geratu zen gurekin eta azken 10 partiduetan 17 puntu lortu ditugu. Bestalde, kontutan izanda lehen urtea zela etxetik kanpora irtetzen nintzena, gustora ibili naiz. Hasieran pixkat gogorra egin zen baina gero ondo moldatu naiz, bai hemengo jendearekin eta bai taldeko lagunekin.

- Arazoren batzuk ere izan dira...

- Bai hasieran kobratzeko arazoak izan genituen.



Datorren urtean non jokatu duen jakiteko zai dago Asier.

"12 gol egin eta gustora jokatu dut"

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Haizea

Lehen errejionala
Igandea, 11.30, Ipintza.

Bergara-Urki

Lehen mailako jubenilak
Larunbata, 17.30, Ipintza.

Bergara-Zumaiako

2. mailako jubenilak
Larunbata, 11.30, Ipintza.

Bergara-Arrasate

Lehen mailako kadeteak
Larunbata, 16.00, Ipintza.

Bergara-Urola

2. kadeteak
Larunbata, 10.00, Ipintza.

SASKIBALOAIA

Bergara-Andraitx

Jubenil mutilak
Larunbata, 16.00,
Labegaraieta Kiroldegia.

ESKUBALOAIA

Bergara-Elgoibar

Kadete mutilak
Larunbata, 17.30.

Bergara-Jauja

Jubenil neskek
Larunbata, 19.00.
Biak Kiroldegian.

PELOTA

- Afizionatuak

• Herri Arteko Txapelketa.
Bergara-Idiazabal
Ostirala, 21.00, Udal Pelotalekua.
• Elosuko Otoba Txapelketa.
Igandea, 11.30, Elosuko frontoia.

- Profesionalak:

• Soroa III eta Azkarate /
Telletxea eta Oliden.
• Etxaniz eta Tolosa /
Eugi eta Errasti.
• Gabilondo eta Galardi /
Kalonge eta Astarloa.
Larunbata, 16.30, Udal Pelotalekua.

PALA TXAPELKETA

9.00: Azkarate anaiak /
Etxeberria eta Alberdi.
10.00: Garitano eta Lete /
Lizarralde eta Zangitu.
11.00: Otaño eta Martinez /
Sanz eta Berroeta.
12.00: Narbaiza eta Madariaga /
Arroyo eta Manzanedo.
Igandean Osintxuko Frontoian.


tuen eta presidentek alde egin behar izan zuen. Eta ez zen batere erreza izan botatzea... Ondoren, presidente berriarekin gauzak normal joan dira. Ikusi egin behar bi hilabete hauetan kobratzeko arazorik ez dagoen...

- Eta orain zer?

- Bueno, play-offetan ez sartzean, 2 hilabete egon beharko naiz jokatzeke. Denboraldia amaitu arte itxoin behar, oraindik ere fitxaketarik ez delako egongo. Gainera zehazteke dago hurrengo denboraldian nola geratuko den 2. maila, bi talde edo bakarra egongo den. Cartagenarekin denboraldi baterako fitxatuen eta denboraldia bukatzen denean Ibañez (Miguel Santosen bulegoan lan egiten duena) nere errepresentantearekin bilduko naiz. Ea zer nolako ofertak dauden...

- Eta Bergarara noiz?

- Bueno aste honetan pisuarena konpondu eta taldearekin ere bileraren bat egingo dugu. Printzipioz hemen geldituko gara, eguraldi ona baitago, baina jaietarako Bergaran gotea espero dut.



Datorren urtean ere Javi Pérez eibartarrak entrenatuko du Bergara K.E.ko futbol talde nagusia.

Urtebete gehiago

Bergara K.E.ko zuzendaritzak beste denboraldi batez luzatu dio kontratua **Javi Pérez** futbol talde nagusiko entrenatzaileari. Zuzendaritzako kide batek azaldu digunez, "pozik gaude aurten taldeak egin duenarekin, nahiz eta azken partiduetan zertxobait behera egin. Datorren urtean? Aurrean ibiltzea nahi genuke; hori bai, azken partidura arte zerbait lortzeko aukera izanez". Aurtengo liga amaitzeko 4 partidu faltan, Bergara 4. postuan dago 40 puntu eta 6 positiborekin. Bestalde, **Manu Díaz** lehen errejionaleko entrenatzaileak taldea utziko du denboraldia amaitutakoan, Nazion mailako Entrenatzaile Tituloa lortzeko asmoa bait dauka Manuk. Bergara K.E.ko Zuzendaritzak ez du bere ordezkoren izena aurreratuko liga amaitu eta taldeak lehen errejionalean jarraitzen duen jakin arte.

KIROL EMAITZAK

FUTBOLA

- Prefente maila: **Bergara 1-Lazakao 1**
- Lehen Errejonala: **Orioko 1-Bergara 0**
- Lehen mailako jubenila: **Añorga 1-Bergara 0**
- Lehen mailako kadetea: **Bergara 0-Aizkorri 1**
- 2. mailako kadetea: **Bergara 3-Allerru 1**
- Lehen mailako infantila: **Bergara 8-Amaroz 0**

ESKUBALOA

- Senior mutilak: **Bergara 25-Deusto 22**
- Kadete mutilak: **Bergara 19-Aloña Mendi 15**
- Kadete neskek: **Bergara 14-Zarautz 8**
- Jubenil mutilak: **Zarautz 24-Bergara 10**
- Jubenil neskek: **Leizaran 14-Bergara 14**

SASKIBALOA

- Jubenil mutilak: **Santo Tomas 55-Bergara 54**
- Infantil mutilak: **Aranzadi 81-Almen 19**

PELOTA

- Herri Arteko Txapelketa **Bergara 5-Aretxabaleta 1**



Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

Espezialitate guztiak

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztanduak, etab...

Zure hortz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

BERGARAKO KLINIKA

Simón Arrieta, 3-2 B
Tf. (943) 76 38 54

ARRASATEKO KLINIKA

Iturriotz, 7 behea
Tf. (943) 79 73 88

ZUMARRAGAKO KLINIKA

Soraluze, 1-1 ezk.
Tf. (943) 72 46 47



Herri-arteko txapelketa. Bergara txapeldun. 1968.

Joan zen urtean bete zituen 25 urte Herri arteko Pilota Txapelketak eta oraingoan dakargun argazkian lehenengo urteko txapeldunak dakartzagu, Bergararrak izan ziren eta.

Bergarak Urretxuri irabazi zion 2 eta 1eko emaitzaz: 16 eta 10 infantiletan, 13 eta 18 galdu jubeniletan eta 22 eta 8 irabazi nagusietan.

Berrogeitazortzi taldek hartu zuten parte txapelketan eta finala Azkoitian jokatu zen. Aipatzekoa da urte hartan Antton Maizek Irunekin jokatu zuela eta Urretxuren kontra galdu zutela hain zuzen ere.

Hona zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Aurreko ilaran: J. M. Errasti, Julio Askasibar, Gonzalez, Altuna "Txara", Jose Maria Anza, Arazkonaga, Alvaro Gallastegi eta Manu Muniategi.

Bigarren ilaran: Antonio Urzelai, Ino Muniategi, Azpiazu "Txistu", Jauregi eta Pepe Perez.

Azken ilaran: azkoitiar bat, Andueza pelotarien aita, Kikio, Agustin Albisua, Jesus Mari Larrañaga, Txomin Garitano, Migel Etxaniz eta Jose Mari Igartua.

Estepan Plazaola. Argazkia: Kikio

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

TENERIFERA!!

Bolu Gimnasioan hilabeteko kuota ordaintzeagatik, Kanarietan bi pertsonarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan.

ZATOZ !!

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

Usoa Pub

Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

MAHER

Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

ETXEBIZITZA

Pisu amueblatua salgai Zabalotegi 1ean. ☎ 76 32 27.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 34*31.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Garajea (bi plaza) salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 52 55.

Zubiaurren pisua alokatzen da. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauetz).

Pisua alokatzen da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsalde).

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauetz).

Pisua salgai Artzamen-din. ☎ 76 44 60.

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

DENETARIK

Yamaha 600 motorra salgai. SS-4. 300.000 ppta. ☎ 76 49 43 / 17 64.

Kotxearen irrati-kaseta salgai (bi baffle). ☎ 76 37 29 (Martin).

Remolke-denda "Cannon" salgai. ☎ 76 37 82.

Edertze aretoa traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peavey anplia eta gitarra. 60.000 pta. ☎ 76 53 55.

Errepiderako bizikleta (Vitus koadroa) salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 29.

Paseozko Torrot bizikleta salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Onix motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

BX-16 TRS kotxea salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

Montesa Cota 335 (SS-AF, 175.000 pta.) eta Vespa 200 (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

Subijanaren sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

Kanpin denda haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauetz).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Gas-Gas Enducross 250 motorra. ☎ 76 43 48.

60 l.ko arrainontzia salgai. Filtro eta berogailuarekin. ☎ 76 04 63 (gauetz).

Macintosh ordenagailu bat erosiko nuke (classic). ☎ (94) 658 27 72.

BMW motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

Game-boy bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

LANA

Makinaz edo ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 21 33 (Garbiñe).

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

OHO eta ingeles klaseak (maila guztiak). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak emango nituzke (OHO, LH...). ☎ 76 50 67.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Haurrak eta zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 40 94.

Gutxitu sikiko, elbarri edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Hildakoak

Catalina Martin Galban
maiatzak 4, 60 urte

Jaiotakoak

Aste bonetan ez da jaiotakoen berri jaso epaitegian

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

kutxan



merkeago daukazu

E T X E B I Z I T Z A - K R E D I T U A K

Badakizu: **kutxak** eskaintzen dizu finantzaketarik onena. Eta orain, gainera, nahi al duzu, etxebizitzari dagokionez, **kutxak** zure alde egin dezakeen guztiaz hitz egin dezagun?

Nahi duzun etxea bilatzen eta aukeratzen laguntzen dizu. Erosteke eman behar dituzun urrats guztien gainean aholkatzen zaitu. Gehien komeni zaizun finantzaketa ikertzen du zurekin batera. Eskubidea duzun onura fiskalen berri ematen dizu. Baita behar dituzun aseguruena ere... Dena, zure oraingo hipotekari dagokiona ere barne, **Kutxa Etxebizitza-Zerbitzuan**.

Zatoz **kutxako** edozein bulegotara eta berehalaxe jabetuko zara. Orain, etxebizitzarekin zerikusia duen guztia, **kutxan** merkeago daukazu-eta.

etxebizitza



zerbitzua

Informa zaitez zeure sukurtsalean edo dei egiguzu

900 40 50 60.ra

DEIA DOHA INIK



••• kutxa •••

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián